

BERRIAK

Gure illak

Bonifazio Etxegarai jauna.

Lotazilleko 24-an il zaigu Durangon eta bere gorpua Gernika-raman zen bere borondatea betez, eta an datza.

1878-ko bagillaren 5-ean jaio zen Zumaya-n. Bere leen ikaskuntzak Donostiako Institutoan egin zituen eta gero deretxo Madrilen, Universidad de M.^a Cristina de los Agustinos del Escorial-en.

Gernika-n udaleko jueza izan ondoren kargu bat irabazi zuen opozitiotan: Secretario de Gobierno de la Audiencia Territorial de Sevilla, 1904 urtean. Gero Cañeres eta Oviedo-n egon zen, eta Vicesecretario del Tribunal Supremo de Justicia izentatu zuten Madrilen 1910 inguruan. Geroago Secretario de Sala egin zuten eta bere azken-egunakarte iraun du.

1926-garren urtean izentatu zen euskaltzain eta bere sarrera-itzaldia Zumaya-n, bere jaioterrian egin zuen, oi den bezela.

Erramon Intzagarai jaunak egin zion erantzuna.

Izkuntza gaietan zenbait lan egin ditu: "Euskal erriko etheen ize-nak", "Algunas voces vascas usadas en el Fuero general de Navarra", "Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas", "Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa", "Euskaldunak, euskeraz" (Donostian egindako itzaldiak), eta abar. Bere gaztaroan zenbait euskal-bertso erë egin zituen bere anai Karmelok aña ezarren. Izkuntzatik kanpo deretxo saillean egin dituen lan batzuek adieraziko ditugu: "El proceso de la Zamacolada" (conferencia organizada en Bilbao por la Junta de Cultura Vasca), "Significación jurídica de algunos ritos funerarios del País Vasco" (1925. Publicación de Eusko-ikaskuntza. Sociedad de Estudios Vascos). "Moción sobre el Apéndice al Código Civil presentada por el representante de la Sección de Derecho Vasco don B. Etxegarai" (1930. Eusko-ikaskuntza). "Estudio jurídico de los contratos entre copropietarios, patronos, tripulantes y fogoneros. Ponencia-proyecto" (Asamblea

de pesca marítima vasca). "Los ritos funerarios en el Derecho consuetudinario de Navarra" (Pamplona, 1951. Publicaciones del Consejo de Estudios de Derecho Navarro [del cual era miembro]). "El Derecho foral vasco" (R. S. V. A. P.) eta abar.

Jaun euskaldun agurgarri au goian bego.

Pedro Zabala jauna

Irailleko 24-garrenean il zaigu Pedro Zabala jauna Euskaltzaindiaren urgazle zena. (G. B.).

Bergaran jaio zen 1889 urtean eta leen-ikaskuntzak bere erriko Errege-Seminarioan egin zituen. Valladolid-en bukatu zuen Deretxo eta Donostian izan zen letrau eta gero Bergaran. Erri onetan Udaleko sekretario izan zen 1921-garrenetik 1936-gnera.

Oso gazterik asmak jo zuen eta bizitza oso gorde bat egin bearrean aurkitu zen. Ala ere Zabala jaunak aurpegi emanik bere gaitzari gai oso luzea bildu zuen bere jaioterriko historiaren gaiñean eta baita izkuntzari dagozkionak ere.

Euskaltzaiña den Luis Mitxelena jaunarekin artu eman luzeak izan zituen eta toponimiari buruzko zenbait gauza Donostiko "B. R. S. V. A. P."-en argitaratu dira. (Ikus aipatu dugun aldizkari onetan jaun berari buruz dakarren berria).

Pedro Zabala jaunarekin, erria ainbeste ohoratzen duten orietako gizon bat galdu da: aztertzaille eredutzakoa, zeatza eta ixilla —bear-bada ixillegia— eta interesik gabekoa.

I z e n t a t z e a

Luis Mitxelena euskaltzain jaun agurgarria Société Linguistique de Paris-eko kide izendatu dute lotazillean. Zorionik gartsuenak.

Azkue Jauna zenaren gorazarrea

Lotazilleko 30-ean eta ilbeltzeko 2-an eta 6-an ospatu dira bere omenezko jaiak Bilbon. Urrengo zenbakian emango dugu zeatz onen berri, bide batez zenbait lan argitaraturik bere omenez, ale lodi batean.